



### PRAKTIKA ASISTENTZIALA ETA KLINIKOA HOBETZEKO «ZER EZ EGIN» GOMENDIOAK

Praktika kliniko-asistentziala hobetzen jarraitzeko asmoz, *Zer ez egin* –edo *Zer egin*– izeneko atal bat sortu dute Bidasoa ESIan. Haren intranetean bistara daitekeen azken gomendioa hau da: «Hasiera batean ez eskatu erradiologia-azterketarik alarma-zeinurik gabeko lunbalgia ez-espezifikoa». Gomendioarekin batera, zenbait iturritan (semFYC, Nice, American College of Emergency Physicians) gai horren inguruan argitaratutakoa jasotzen da eta iaz ESIan gerrialdeko zenbat erradiografia egin ziren zehazten da: guztira 2.772; lehen mailako arretan 1.787, kanpo-konsultetan 452 eta larrialdietan 533.

### EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI-AN HASTEAREN BERTAKO PROFESIONAL ADMINISTRATIBOEN ARTEAN BI HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA-IRIZPIDEAK ZABALTZEKO KANPAINA




Kanpaina horretarako, jolas bidezko prestakuntza-metodologia batez baliatuko dira, bideo interaktibo batez. Jolasaren helburua da zita ematea lehentasuneko hizkuntza euskara duen paziente bati. Jolasak ematen dizkien aukeren artean bat aukeratu beharko dute administrazioek, eta, jolasa amaitzean, hartutako erabakien arabera puntuazio bat lortuko dute, hau da, protokoloaren betetze-mailaren arabera. Horrez gain, jolasak *trivial* txiki bat ere badauka zita

euskaraz ematen trebatzeko, bai eta hainbat material osagarri ere, euskarazko arretari begira baliabide lagungarriak eskaintzeko. Aplikazio honetaz jardunginen, hain zuzen ere, [Osatuberriren 38. zenbakian \(4-5. orr.\)](#).

Kanpaina EEC ESIko Euskara Batzordearen ekimenez egingo da, apirilaren 30ean hasiko da eta 3 hilabete iraungo du, udan ordezkapenak egiten dituzten langileenganaino ere iristeko asmoz.

### EUSKARA-PLANEKO IRIZPIDEAK ERDI-MAILAKO ARDURADUNEI TRANSMITITZEKO ESKULIBURUA

- Euskaraz egin behar al diogu beti lehen hitza Harrerara etorri den pazienteari?
- Behin pazientearen lehentasuneko hizkuntza Osabiden erregistratuta, osasun-zentroan bakarrik izango al dute horren berri?
- Zein kasutan jarri behar dugu  ikurra?
- Hizkuntza ofizial bakarri erabili ahal izango dugu izapide guztietan, langileak lehentasuneko hizkuntza hautatu badu?
- Euskarazko prestakuntza-saioetan parte hartzea sustatu behar al dugu, erakundeak ele bietan eskaintzen baditu?

Erdi-mailako arduradunei halakoxe zailtzak burura dakizkielako moldatu dute [eskuliburua](#) Bidasoa, Tolosaldea, Donostialdea eta Goierri-Urola Garaia ESIetako eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko hizkuntza-teknikariek, gogo aipatutako arduradunek (gainbegiraleek, unitateburuek, zentroburuek...) hizkuntza-normalkuntzaren prozesuan duten rol garrantzitsuen jakitun.

Izan ere, honelaxe dio II Euskara Planak aurreko planaren ondorioak jasotzen dituen ataleko d) puntuan: *Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua ez da arrakastatsua izango Osakidetza eta zerbitzu-erakundeetako zuzendaritza-*

*taldeen konpromisorik, bulkadurik eta lidergorik gabe. Hortaz, behar-beharrezkoa da Planaren zeharkakotasuna ziurtatzeko neurriak hartzea, betiere erdi-mailako arduradunen eta unitateburuen parte-hartze eta inplikazioarekin, beraiek baitira bi hizkuntzak erabiltzeko jarraibideak euren zerbitzuetan transmititu eta eguneroko eginkizunetan txertatu behar dituztenak.*



## Edurne Bikuña

Goierrri-Urola Garaiko ESIn erizaina

# «Eguneroko jardunean gerta daitezkeen komunikazio-oztopoak jarriko dira mahai gainean»

Maiatzean Osasun Biltzarra egingo du OEE Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak, hogeita zortzigarrenez egin ere, *Komunikazioa - Inkomunikazioa* izenburupean. Aurten maiatzaren 18tik 19ra izango da Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Biltzarra OEEk antolatu ohi duen egitasmorik mamitsuena da. Edurne Bikuña (Oñati, 1963) Biltzarraren hamar antolatzailetako bat da eta Goierrri-Urola Garaiko ESIn erizain lan egiten du.

### Zer da OEE?

Izenak dioen moduan, elkarte bat da, osasun-alorrean euskara normalizatzeko laguntzen duena, eta haren helburua da osasungintzan euskararen erabilera sustatzea egitasmoak antolatuz; besteak beste, osasun-biltzarrak, bertso-saio klinikoak, Agote saria —bi urte-tik behin antolatzen duguna— edo Osa-gaiz osasun-zientzien aldizkaria, Uda-ko Euskal Unibertsitatearen lankidetzarekin. Gaur-gaurkoz, 360 bazkide inguru gara elkartearen parte.

[Osasun-alorra zabala da, ordea.](#)

[Osakidetzakoek soilik hartzen al duzue konpromisoa elkartearekin?](#)

Ez, gehienak Osakidetzakoak edo Osasunbidekoak garen arren, osasun-lan-gile asko dira bazkide, osasun-sistema publikotik at egonda ere. Esan daiteke osasun-langileak garelako denak; elkar-

tea irekia da. Bazkide izateko, webgunean dago inskripzio-orria; urteko kuota ordainduz gero, elkarteko berriak jasotzen dira aldi berean.

[Nolako da Goierrri-Urola Garaiko ESIn euskararen egoera?](#)

Aski osasuntsua dela esango nuke. Profesional asko daude euskaraz egiten dutenak, nahiz eta, oraindik, badagoen zer hobetu, batez ere arreta espezializatuaren alorrean. Lanpostu jakin batzuk bertako jendearekin betetzea zaila izaten da, eta bertakoak ez direnekin osatzen da lantaldea; hortaz, zaila izaten da, batzuetan, bezeroaren hizkuntza-eskaera bermatzea.

[Eta nola irudikatzen duzu etorkizuna?](#)

Euskarari dagokionez, etorkizuna kezka handiarekin irudikatzen dut profesionalak izateari lehentasun gehiago ematen diogulako euskaldunak izatea-





ri baino, eta bata ez dio ezer kentzen besteari. Profesional euskalduna izan zaitezke arazorik gabe, hizkuntzak gogor aberasten baitu profesionaltasuna. Bestalde, guk geuk barneratu behar dugu ez dela nahikoa Euskal Herrian jaioak izatea: geure hizkuntza defendatu behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da euskara erabiltzea eguneroko esparru guztietan.

#### **Komunikazioa - Inkomunikazioa deitu diezue jardunaldiei; zergatik?**

Aurreko urteetan, osasun-gai jakinen inguruan jorratu izan ditugu biltzarreko saioak. Aurten, ordea, bestelako norabide bat eman nahi izan diegu. 2010az geroztik Debagoieneko taldeak euskara eta osasuna nola uztar daitezkeen aztertu eta gero, gaia mintzagai bilakatu dugu, osasuna eta hizkuntza hertsiki lotuta daudelako, batetik, eta komunikazioa eta inkomunikazioa bide askotatik jorra daitekeelako, bestetik. Oso gai zabala da, bestelakoa, eta horrek bide ematen digu, komunikazioa ardatz hartuta, gai askori buruz mintzatzeko.

#### **Eta nola uztartzen dira hizkuntza eta osasuna?**

Alde batetik, euskarazko osasungintza komunikabideetan eta komunikazio-tresnetan nola islatzen den ikasiko dugu; esate baterako, osasunarekin lotutako terminologian sakonduko dugu eta osasunaren inguruan informatzeko eta komunikatzeko zer tresna ditugun ikusiko dugu. Osasunari buruzko euskarazko edukiak sortzen dabilen Wikipediako taldea ere bertan izango da. Beste alde batetik, pazienteen eta profesionalen artean gerta daitezkeen komunikazio-arazoak izango ditugu hizpide, eta hori da, batik bat, azpimarratu nahi duguna: inkomunikazioa sortzen dizkiguten gaiak, hau da, egunerokoan gerta daitezkeen komunikazio-oztopoak zein diren identifikatu eta aztertuko ditugu, eta horiei nola egin diezaiekegun aurre.

#### **Urtetik urtera, hortaz, gai bat lantzen duzue biltzarrean.**

Hori da, eta interes zabala dutenak bilatzen saiatzen gara ahalik eta profesional gehien erakartzeko. Interesa sor-

dezaketen gaiak hautatu izan ditugu azken urteotan; esaterako, emakumeak eta osasuna, infekzioak, mendekotasunak, osasuna eta kirola, osasun-hezkuntza, eta abarren abarra.

#### **Eta nolako izan ohi da antolatzekeo prozesua?**

Urtebeteko lana dago biltzar honen atzean, eta non egingo den kontuan hartzen dugu antolatzaileak aukeratzeko orduan. Gure kasuan, talde txiki bat gara, guztira, hamar bat pertsona, hain zuzen ere, batzorde antolatzaile eta zientifikoa osatzen dugunak. Gutako batzuk hurbil bizi gara, baina oro har, Debagoienean lan egiten dugunok osatzen dugu lantaldea.

#### **OEEko bazkide izatea beharrezkoa al da bertaratzeko?**

Ez, ez da beharrezkoa bazkide izatea. Biltzarra euskara hutsean izanik, entzuleak euskaldunak izan ohi dira, baina bazkide ez diren asko azaltzen dira, gaiarekiko interesa duen edonor. Urtetik urtera, gero eta gazte gehiago animatzen dira. Oro har, osasun-langileak izaten gara gehienak, baina badago gizarte-hezkuntzan lan egiten duenik ere. Aurten, 120 bat lagun elkartzea espero dugu.

#### **Biltzarra ez duzue nolanhiko lekuan egingo.**

Leku berezi eta esanguratsua da Arantzazu. Gainera, EAEko herrialdeen arteko mugan dago, eta behar ditugun baliabide guztiak ditu. Aitzakia ona da, beraz, jendea erakartzeko.

#### **Zergatik joan behar luke jendeak?**

OEEren helburuarekin bat egiteko. Euskararen erabilera oso garrantzitsua da osasun-alorraren egunerokotasunean, eta hori normalizatzeko bidean gabil-tza borrokan. Hori sustatzeko, ezinbestekoa da formatu honetako egitasmoak antolatzea; mota horretako bakarra da, lau mahai-inguru, hiru tailer eta hitzaldi bat dira osagai nagusiak. Interesdu- nek [www.oeeegunea.eus](http://www.oeeegunea.eus) webgunetik bertatik egin dezakete izen-ematea. Horrez gain, bi kultur ekintza ere antolatu ditugu: Arrikrutzeko kobazulora eta Aizkorri-Aratz parke naturaleko interpretazio-zentrora.

# normalizaziorako baliabideak

Osakidetzako telefono-sistema korporatiboak ahozko eta idatzizko mezuak ematen ditu. Horretaz jardun ginen, hain zuzen ere, [Osaturriburen 37. zenbakian \(18-19. orr.\)](#). Hala, orain, IP telefonia-sistemara egindako aldaketaren ondorioz, langile bakoitzak aukeratu dezake bere telefonoan mezuak zein hizkuntzatan irakurri edo entzun nahi dituen.

## IDATZIZKO MEZUAK

Oso erraza da aldaketa egitea, telefono-modelo bakoitzari dagozkion jarraibideak bete besterik ez da egin behar. Hona eman beharreko pausoak:

TELEFONO-modeloa	JARRAIBIDEAK
 CP200/CP205	«Usuario» OK «Localidad?» OK «Idioma=Español» OK «Euskara» OK «Guardar?» OK
 CP400	«Ajustes» OK «Páginas de usuario» OK «Localidad» OK «Idioma Español» OK «Euskara» OK «Guardar» OK
 OpenStage 15	«Ajustes» OK «Usuario» OK «Localidad» OK «Idioma=Español» OK «Euskara» OK «Guardar y salir?» OK
 OpenStage 40	«Ajustes» OK «Usuario» OK «Localidad» OK «Idioma: Español» OK «Euskara» OK «Guardar» OK

## AHOZKO MEZUAK

Langileak ezin ditu konfiguratu telefonia-sistemako ahozko mezuak. Horretarako, dagokion ESiko informatika-zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko da.

# agenda

## HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBETARAKO 2018KO LEHENENGO DEIALDIA

Idatzizko probak maiatzaren 5ean egingo dira, Barakaldon (BEC), eta ahozkoak, aurreikusita dagoenez, ekainaren bigarren hamabostaldian, EAeko hiru lurraldeetan.

[informazioa](#)

## 2018-2019 IKASTURTEKO LANORDUZ KANPOKO EUSKARA-IKASTAROAK

Eskaera egiteko epea: apirilaren 13tik maiatzaren 22ra, biak barne.

[informazioa](#)

## 2018KO UDAKO EUSKARA-IKASTAROAK

Eskaera egiteko epea: apirilaren 24tik maiatzaren 9ra, biak barne.

[informazioa](#)

## semFYC-en 38. BILTZARRA

Maiatzaren 10etik 12ra, Bartzelonan.

[informazioa](#)

## IEB2018: INFORMATIKARI EUSKALDUNEN XI. BILKURA

«Buruja betza teknologikoa».

Maiatzaren 17an, Donostian, Teknologi Elkartegian.

[informazioa](#)

## OEE OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN 28. OSASUN BILTZARRA «KOMUNIKAZIOA - INKOMUNIKAZIOA».

Maiatzaren 18an eta 19an, Arantzazun (Gipuzkoa).

[informazioa](#)

## BIDASOA ESIKO ZAINKETA ARINGARRIEN V. JARDUNALDIA

«Zainketa aringarria: zer ari gara egiten?».

Maiatzaren 24an, Hondarribian, Itsas Etxea Auditoriumean.

[informazioa](#)

## BARAKALDO-SESTAO ESIKO V. JARDUNALDIA

«Osasuna sanitatetik harago».

Maiatzaren 29an, Barakaldon, Clara Campoamor Zentro Zibikoan.

[informazioa](#)

